

## Administrazio Kontseilua berritu du Euskaltelek, eta Jon Ander de las Fuentes izango du buru

- Jon Ander de las Fuentesek ibilbide profesional luze eta arrakastatsua izan du, historikoki Euskalteli eta euskal ekonomiari lotua.
- Meinrad Spengerrek Euskalteleko kontseilari delegatua izaten jarraituko du.
- Euskaltel Fundazioaren Patronatua ere berritu du operadoreak, eta Luz Usamentiaga izango du buru aurrerantzean.
- Aldaketa horiek euskal operadoreak MasOrange Taldearen Euskadiko erreferentziatzeko marka gisa hasiko duen etapa berriaren ondorio dira.
- MasOrange/Euskaltelek Euskadirekiko konpromisoa berretsi du, eta hiru urtean 200 M€ inbertitzen ari da Euskadin.
- Euskaltel da oraindik ere lurraldeko etxeen eta negozioen aukera gogokoena, eta zuntzeko eta mugikorreko banda zabalaren estaldura handiena duen operadorea da.

*Derio, 2024ko abenduaren 20a.*- Euskaltelek, EAEko telekomunikazioen operadore liderrak, **Administrazio Kontseilua berritu du**, eta **Jon Ander de las Fuentes izendatu du presidente**, Euskadiko Euskaltelen eta MasOrangeren egungo zuzendaria.

**Jon Ander de las Fuentesek Xabier Iturbe ordezkatu du karguan.** Euskalteleko Administrazio Kontseiluak eskerrak eman dizkio Iturberi Konpainiaren buru izan den urte hauetan egindako ahaleginagatik eta lanagatik, arrakasta garrantzitsu ugari lortu baititu, hala nola MASMOVILen eta, geroago, MasOrange-ren barruan txertatzeko prozesua gainbegiratzea. Xabier Iturbe euskal operadorearekin lotuta egon da historikoki, eta ospe handia du euskal ekonomiaren eta gizartearen hainbat arlotan.

Gainera, **Administrazio Kontseiluak aitortza egin die Beatriz Mato, Iñaki Alzaga eta Germán López**zi, Euskaltelen negozio eta gobernantzarako erronkaz eta eraldaketaz beteriko urte hauetan guztietan proiektuari egin dioten ekarpenagatik.

Aldaketa horien ondoren, hauek dira, Jon Ander de las Fuentesekin batera, **Euskaltelen Administrazio Kontseiluko kide berriak: Meinrad Spenger** (kontseilari delegatua), **Cristina Sustacha**, **Ludovic Pech** eta **Julio Gomez** (batzordekideak) eta **Alberto Castañeda** (idazkaria).

Hala, MasOrange/Euskaltelek **etapa berri bati** ekin diote, Orangek eta MASMOVILEk bat egin ondoren, eta **Euskadirekiko konpromisoa berritu eta berretsi dute**: izan ere, **Taldearen inbertsio historikoa 3.700 M€ baino gehiagokoa da, batez ere telekomunikazio-sare modernoak garatzera bideratua, eta hiru urterako inbertsio-plan gehigarri bat** egiten ari da, **200 M€**-koa.

“Etapa berri bat hasiko dugu Euskaltelen, aurrerapen teknologikoarekin, berrikuntzarekin eta Euskadiren digitalizazioarekin dugun konpromisoari eutsiz. Zuntzeko eta 5G konexioko sarerik onenak garatzen jarraituko dugu, eta berretsiko dugu EAEko eragile industrial, inbertitzaile eta inpaktu positiboaren sortzaile gisa dugun funtsezko zeregina”, esan du **Jon Ander de las Fuentes Euskalteleko presidente eta MasOrangeren Euskadiko zuzendariak**.



### **Euskaltel Fundazioaren patronatu berria**

Gainera, Euskaltelek **Euskaltel Fundazioaren Patronatuaren osaera** ere berritu du. Patronatuko burua **Luz Usamentiaga** izango da, eta **Nerea Enbeita**, berriz, **Fundazioaren zuzendaria**.

Horrez gain, patronatuko kide izendatu dituzte **Idoia Uriarte, Jon Ander de las Fuentes, Julio Gómez, Ludovic Pech, Meinrad Spenger, Miguel Angel Suárez eta Fernando Seco**, eta **Cristina Sustacha** izango da Patronatuko idazkaria.

Euskaltel Fundazioaren helburua da **eten digitala murriztea**. Horretarako, **ikerketa, azterketa eta garapen teknologikoko jarduerak sustatzen ditu**, eta teknologiarako sarbidea errazten die herritarrei, trebakuntza digitalaren, berrikuntzaren eta erakundeen arteko lankidetzaren bidez, guztien artean bermatzeko etekina ateratzen zaiela teknologia berriei Euskadin.

Datorren urtean, **25. urteurrena beteko du Fundazioak**, eta, beste jarduera batzuen artean, **“Euskaltel Digital Center”** izeneko espazioa irekiko da. Fundazioaren erreferentziagune bihurtuko da **gaitasun digitalei buruzko trebakuntza-jarduerak egiteko, talentua aurkitzeko eta enplegarritasuna hobetzeko, bai eta gure teknologiak enpresei eta herritarrei eskaintzen dizkien aukerak erakusteko ere**.

### **Euskaltel, MasOrange Taldearen Euskadiko erreferentziatzeko marka**

Taldeak Euskadin duen **erreferentziatzeko marka da Euskaltel**, eta **EAEko etxe eta negozioen aukera gogokoena**. Hain zuzen ere, Euskaltelek eta MASORANGEk **2 M**

**linea inguru** dituzte lurraldean. Gainera, banda zabaleko bezeroen % 85 baino gehiago zuntz optikoko bezero dira.

Gaur egun, **banda zabaleko estaldura handiena duen operadorea da Euskaltel/MASORANGE**, eta **FTTH zuntz optiko bidez iristen da EAEko 251 udalerrietako 1,25 milioi etxe eta negozio baino gehiagotara**; beraz, ia biztanleriaren % 100i ematen dio estaldura. Gainera, arrakastaz amaitu du kable-sarea zuntzera aldatzeko prozesua.

Horretaz gainera, **Euskaltel/MASORANGE da Euskadiko operadore bakarra gai dena enpresei 5G Stand Alone zerbitzua eskaintzeko**, hots, 5G zerbitzurik aurreratuena, kalitate eta segurtasunik handiena bermatzen duena 5G sare pribatuen bidez, eta 5G teknologia horren bidez ematen dio estaldura EAEko populazioaren % 92ri baino gehiagori.

### **MASORANGE/Euskaltel, lurraldearekin konprometituta**

MASORANGE/Euskaltelek konpromiso sendoa du Euskadirekin **berrikuntzari, kulturari eta gizartearekiko inpaktu positiboari** dagokienez.

Testuinguru horretan, **presentzia zabala du erakundeetan, eta lankidetzan dihardu administrazio publikoekin eta euskal ekonomiako sektore estrategikoekin**. Hala, liderra da zenbait azpiegitura digitalen garapenean: mugikortasunaren arloan (**metroa, euskal trenbide-sarea eta korridore logistikoen sarea**), **datuak kudeatzeko azpiegituraren garapenean** eta hiri adimendunetan (**hiri handietako hiri-altzarrietan *small cellen* bidez hedatzeko planak**, luminariak, etab.)

Gainera, zenbait **proiektu estrategiko** garrantzitsutan parte hartzen du, hala nola **zerbitzu partekatuen zentroa, Derioko (Bizkaia) I+G zentroa**; AAri, zibersegurtasunari, konektagarritasunari, datuen analisiari eta Gauzen Interneti (IoT) lotutako proiektuekin dihardu horretan. Bestalde, **5G teknologia** garatzeko ahalegina egiten du zenbait proiekturen bidez —**BasqueCCAM, 5G sareduna, edo Atlantic Data infrastructure**—, erreferentziazko bazkide publiko eta pribatuekin batera, enpresen eta administrazio publikoen eraldaketa digitala bultzatzeko.

Nabarmentzekoa da orobat **Euskaltel-Euskadi txirringularitza-taldearen babesletza**, Euskadi Fundazioari finantza-aldetik lagunduta, erreferentziazko beste bazkide batzuekin batera: Laboral Kutxa eta Kutxabank.



**Prentsarako kontaktua:**

Fernando Castro

[fernando.castro@masorange.es](mailto:fernando.castro@masorange.es)

Telefonoa: (+34) 656.160.378